

ENERGIA ETA MEATZEEN AURREZTE ETA HAZKUNTZARAKO AZTERTEGIA, S. A. (CADEM)

Sozietatearen izena

Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero, S. A.

IFK

A01025740

Izaera

Sozietate Publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

CADEM honako honen bidez eratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde autonomo gisa: [11/1981 LEGEA, azaroaren 18koa, "Energia eta Meatzeen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia sortzekoa"](#). Ondoren, Eusko Legebiltzarrak [9/1982 Legea, azaroaren 24koa, Energiaren Euskal Erakundea sortzeari buruzkoa](#) onartu zuen, eta haren bigarren xedapen gehigarrian CADEM sozietate publiko gisa eratzea xedatu zen.

Geroago, [19/1988 DEKRETUA, otsailaren 14koa](#) oinarri hartuta, Energia eta Meatzeen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia S. A. sozietate publiko gisa sortzea onartu zen; hori 1983ko martxoaren 29an gertatu zen eskritura publiko bidez.

Azkenik, [13/2014 DEKRETUAK, otsailaren 11koa, CADEM Energia eta Meatzeen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia S.A. sozietate anonimoa eratzen duen Dekretua aldatzen duenak](#), Administrazioaile bakarra Sozietatearen administrazio-organoa dela ebazten du.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

8413 Jardun ekonomikoaren arautzea eta eraginkorragoa izaten laguntzea.

Sozietatearen helburua

Energia eta Meatzeen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia S.A.U. sozietatearen jardura nagusia energiaren kontserbazioa eta aurrezpena aztertzea, sustatzea eta babestea da. Sozietatearen eginkizun orokorra da energiaren eraginkortasuna eta aurrezpena hobetzeko jarduerak egitea eta bultzatzea, eta energia berriak garatzen laguntzea Euskal Autonomia Erkidegoan, energiaren zentzuzko erabilpena egiteko teknologiak sustatuz eta aholkularitza teknikoa emanez.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

Kapital soziala

2.720.000 €

Kapital sozialaren osaera

Energiaren Euskal Erakundea: % 100

Administratzaile bakarra

Administratzaile bakarra sozietatearen administrazio-organoa da, eta berari dagokio sozietatea kudeatzea eta ordezkatzea, zentzu zabalenean. 2013ko ekitaldiko urteko kontuak egiten dituen administratzaile bakarra Pilar Urruticoechea Uriarte andrea da.

2013ko aurrekontuak

www.euskadi.eus

2013ko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, 2013ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	2.966.361 €
Ondare garbia	2.776.153 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	47.331 €
Batez besteko langile-kopurua	16

Sozietatearen helbidea

Urkixo zumarkalea, 36-1. solairua (Bizkaiko Plaza eraikina) Bilbo 48011 Bizkaia.

Webgunea

www.eve.es